

BALIO PROPOSAMENA

Zuosis enpresa gazteen aisialdira bideratutako kafetegi ekologiko eta jasangarria da eta gure helburua gizartearekiko ditugun hainbat kezari irtenbidea aurkitzea da, hauek dira horietako kezka batzuk:

- Gazteek oro har ez dituzte baliabide ekonomikorik eta ondorioz, zabor-jana jateko ohitura dute, oso merkeak baitira. Horregatik, osasun arazo honekiko dugun kezkari erantzuteko *Zuosis* enpresak produktu **osasuntsu, ekologiko** eta **merkeak** eskeiniko ditu, honako hau izanik gure potentzial nagusia.
- Vitoria- Gasteizko hiriko klima hotzari aurre egiteko irtenbide gisa proposatzen dugu, gazteek eguraldi txarreko egunetan **modu eroso** batean biltzeko aukera izan dezaten. Horregatik, gure lokala **espazio desberdinetan** banatuta dago, momentu desberdin batera egokitzen dena. Alde batetik, **aisialdirako** espazio zabal bat daukagu, lagunartean denbora pasatzeko, musika entzuteko eta zerbait jateko aukera ematen duena. Bertan, besaulki eta mahai erosoak egongo dira, bezeroak etxean egongo balira bezala sentiaraziko dituztenak. Bestalde, **ikasteko**, lan egiteko edo irakurtzeko espazio lasai eta isil bat dugu, non kontzentrazioa, kafe on batekin eta janari osasungarri batekin konbitantzea posible den.
- Gure enpresak bertako merkataritzarekin duen konpromezua dela eta, bertan eskaintzen ditugun produktu ekologikoak **bertako** eta **aldikoak** dira, eta hau bermatzeko, Gasteizko *Bionekazaritza* elkarteko produktuetaz hornitzen gara. Bestalde, **bertako kultura** sustatzeari garrantzi handia ematen diogu, eta horregatik, gazteentzako espazio bat eskainiko diegu haien trebetasunak zabaltzeko aukera izan dezaten.
- Krisialdi klimatikoarekiko kezkaren aurrean, hainbat neurri hartuko ditu *Zuosis* enpresak. Alde batetik, **bigarren eskuko erabilpena** sustatzeko, liburutegi txiki bat eskuragarri egongo da non azken urteetako “*bestsellerrak*” egongo diren, baita gure bezeroek erabiltzen ez dituzten liburuak ere. Bestalde, gure kafetegian saltzen ditugun produktu guztien **edukiontzia birziklatuak eta birziklagarriak** izango dira, plastikoaren erabilera guztiz murrizteko.

Laburbilduz, elikadura osasuntsu bat eta giro erakargarria eskuragarri uzten dugu gazteen ekonomiarentzako merkatuan honen behar argia ikusten dugularik. Horregatik, gure kafetegia bezalako espazio bat ezinbestekoa da gazteen gaitasunak garatu eta sustatzeko; haiek baitira etorkizuneko gizartea eraikiko dutenak.